


Argazkilaria



Siria, Senegal, Kuba, Guatemala, Nikaragua, Mexiko, Kolonbia eta Euskal Herriko 10 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek egin dituzte erakusketako argazkiak.
●
ZABALDI



«Zabaldin internazionalista dezente ibiltzen dela profitatuz, beste herri batzuetara zihoazenei bina argazki makina eman zizkieten, hango haurrek, neska batek eta mutil batek, bere bizimodu eta inguruaren argazkiak egin zituzten»



izanik haurrek atera dituztela, ez direla profesionalak eta askok ez dutela inoiz argazki makinarik erabili», dio Azkunek. «Badira gauza bitxiak, gainera. Esate baterako, haurrek ikuspegi zabalagoa dute. Familia bat ateratzeko orduan ingurua ere sartzen dute. Ikusten da herria ere zenbat

eta garatuagoa izan, argazkiak orduan eta estandarragoak direla. Beste herrietan askatasun handiagoa eta ikuspegi arraragoak ikusten dira».

Azkenik, Azkunek azpimarratu du haurren anonimatoa gorde nahi izan dutela. «Sarritan halako erakusketak antolatu dira lehiaketa baten gisara», erran du. «Argazkirik onena egiten baduzu sariren bat emanen dizugu», esaten diete haurrei. Guk alde zuzenetik argi eta garbi esplikatzeko

genien zein zen gure asmoa, inolako gozokirik eman gabe».

Munduko argazkilaririk xumeenak erakusketa ikusgai dago Zabaldi Elkartasunaren Etxean (Nabarrerria, 25) urtarrilaren 10 arte, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Goizetan ondoko dendatik sartu behar da Zabaldira.

→ Asier Azpilikueta